

iKas



euskal pedagogia zerbitzua



BILTZAR NAGUSIA

2020ko ekainaren 27an

ateak hetsirik ("à huis clos")



2019ko lanak eta kontuak

Kontu mandatoriaren txostenak

2020ko egitasmoak eta aurrekontuak

Aurkibidea

2019ko lanen bilduma

1. Dokumentazio zerbitzua	3
1.1. Mediateka	3
1.2. Partaidetzak	4
2. Animazioak, partaidetzak	5
3. Ikasmaterialgintza	6
3.1. 2019an argitaratuak euskarri materialetan	6
3.2. Berrargitalpenak	6
3.3. Argitalpen digitalak	7
3.4. Landu ditugun proiektuak	8
3.5. <i>DUDAKEN</i> Hezkuntzako estilo liburua	9
4. Hedapena	10
4.1. Euskarri materialen hedapena	10
4.2. Webguneen bidezko hedapena	10
5. Besterik	11
5.1. IKASen 60. urtemuga	11
5.2. Euskalgintza	11
6. IKASeko langileak	12

2020ko egitasmoak

1. Dokumentazio zerbitzua	13
1.1. Mediateka	13
1.2. Partaidetzak	14
2. Animazioak	15
3. Ikasmaterialgintza	16
3.1. 2020ko argitalpen egitaraua	16
3.2. Berrargitalpenak	17
3.3. Landuko ditugun proiektuak	17

2019ko kontuak, bai eta kontu mandatariaren txostena kontuez eta hitzarmen arautuez ere

2020ko aurrekontuak

2019ko LANEN BILDUMA

1. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

1.1. Mediateka

1.1.1. Datu basearen egoera zenbakitan

2019ko bazkide kopurua: 274 (260 Ikas txartela + 14 BaiPass)

Notizien kopurua (orotara): 33 637 (2020/01/01ean)

Ale kopurua (orotara): 27 121 (2020/01/01ean)

Maileguen kopurua: 4 522 ale mailegatu dira 2019an (+ % 32 2015etik)

Sailez sail:

- Helduen literatura: % 6,7
- Helduen dokumentalak eta bigarren mailako material pedagogikoa: % 6,7
- Haur dokumentalak eta lehen mailako material pedagogikoa: % 12,8
- Gazte literatura: % 4,4
- Haur literatura: % 13,3
- Albumak (6 urtez petik): % 17,1
- Komikiak: % 2,7
- CDak, DVDak, jokoak: % 8,1
- Andanakako liburuak: % 21,4
- Aldizkariak: % 0,4

1.1.2. Xedarratzea (désherbage)

2019an, 789 liburu deskatalogatu ditugu haur eta gazte literatura sailetik (bereziki zaharkituak ziren andanakako liburuak); halaber helduendako 290 liburu (bi aletan genituenak).

Urrian, azoka berezia antolatu dugu Ikasen, eta liburu horiek eman edo prezio apalean (1€) saldu.

1.1.3. Funtsaren aberastea eta berritzea

2019an 231 dokumentu erosi ditugu.

Erosi ditugun dokumentuak sailez sail:

- Helduen literatura: % 15,15
- Helduen dokumentalak eta bigarren mailako material pedagogikoa: % 23,38
- Dokumentalak lehen mailarentzat: % 18,18
- Gazte literatura: % 6,93
- Haur literatura: % 19,8
- Albumak (6 urtez petik): % 16,45
- Komikiak: % 5,63
- CDak, DVDak, jokoak: % 3,03

Erosi ditugun dokumentuetarik % 23 iparraldekoak dira (Ipar euskal herriko idazleenak edo argitaletxeetakoak).

1.1.4. Mediatekaren erabiltzaileak

Urtez urte emendatzen ari dira mediatekaren erabiltzaileak. Aurten, 900 bat bisita izan ditugu (+ % 11 iaiztik).

Mediateka erregulariki erabiltzen da lan egiteko leku gisa edo prentsaren irakurtzeko.

2017an herriko liburutegiaren eta ikasekoaren artean plantan ezarri genuen Bai Pass sistema bali da beti. Irakurle gutik hartu dute (14k aurten) nahiz estimagarria den: Uztaritzeko herriko etxearen laguntzarekin, 10 euroren trukean, Uztaritzeko herritarrek txartel bakarra balia dezakete bi mediateketan.

1.1.5. “Mediateka birtuala” (webgunean) eta dokumentazio saileko zaintza

Bazkideen beharren arabera eta dokumentazio saileko zaintzari esker, dokumentu digitalen eskaintza emendatzen dugu:

– Katalogoan: artikuluak, irrati eta telebistako saioak (Radiokultura, Kanaldude). 2019an, 365 dokumentu digital katalogatu ditugu.

– Dokumentazio gunean: irakasleei eta ikasleei interesatzen zaizkien dokumentu digitalak sarean ezartzen ditugu (ustiapen pedagogikoak, azterketa gaiak...). Zubererazko dokumentu digitalen eskaintza zaintzen dugu bereziki.

1.1.6. Ikasolas

2016ko urrian **Ikasolas**, Ikasen kazeta digitalaren lehen zenbakia nasaiki zabaldu genien irakasleei, hezitzaileei eta burasoei. Bost artikulu badira beti: *Gelako leihotik* (eskolako proiektu interesgarri baten deskribapena), *Erakusleihoa* (liburu baten aurkezpena), *Olerkia eta aho korapiloak* (adin guziendako olerkiak), *Ikasen berriak* (azkenik argitaratu ikastresnak, euskarri materialetan zein digitalean, mediatekako berriak eta formakuntzak) eta *Kanpoko berriak* (webgune interesgarriak, aplikazioak edo egintzak). 2019an, hiru zenbaki plazaratu ditugu: urtarrilean, maiatzean eta azaroan. 2019ko azken zenbakia 1 088k hartu dute eta haietarik 405ek ireki.

1.1.7. Mediatekaren biziaraztea

Lekua publiko zabalari irekitzeko eta ezagutarazteko asmoarekin segitzen dugu eta araberako egintzak antolatzen.

Literatura saileko bi gertakari antolatu ditugu Uztaritzeko ikasleentzat:

– 2019ko maiatzaren 24an Xantal Barneix Elizagarai irakasle ohiak eskaini digun kamishibai ikuskizuna.

– 2019ko urriaren 1ean Yolanda Arrietak egin duen ipuin kontaketa, Euskal Idazleen Elkartearen laguntzarekin.

Bi animazio horietan parte hartu dute Uztaritzeko Jondoni Bixintxo eskolako eta ikastolako lehen eta bigarren urteetako haurrek (orotara 105 haur lehenean eta 35 haur bigarrenean).

– Irakaslegaientzat eta AEKko ikasleentzat, mediatekaren bisitak antolatzen ditugu, lekua erabiltzen ikas dezaten eta eskaintzen duguna ezagut.

1.2. Partaidetzak

1.2.1. Bilketa sarean: lan partekatua autoritateen sailean

Euskal grafia berant finkatua izan da eta askotan euskal idazleen izenak desberdinki idatziak dira katalogoen arabera, adibidez: *Charritton* eta *Xarriton*. Horrek problemak sortzen ditu katalogoak batzen ditugularik. Horregatik, Bilketa sarean lan talde bat osatu genuen 2017an euskarazko egileen autoritateen lantzeko. Bibliothèque nationale de France erakundeak dio egiten dugun lanaren emaitza kontuan hartuko duela.

2019an bost aldiz bildu gara. Nafarroako Liburutegi Nagusiaren ordezkari bat taldean sartu da, eta orain zazpi egituraren ordezkariak biltzen gara: Baionako Mediateka, Bilketa, Euskal Museoa, HABA Liburutegia, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzua, Nafarroako Liburutegi Nagusia eta Ikas. 1900 arteko egile klasikoaren autoritateen azterketa bukatua dugu.

1.2.2. Wikipedia euskaraz, Bilketarekin

Euskararen presentzia interneten premia handikoa da. Bestalde dokumentazio arloan, Wikimedia tresnaren ongi erabiltzeko, nola ibiltzen den jakin behar da. Iparraldeko euskal idazleen agerian emateko talde bat osatu dugu eta euskarazko wikipediaren edukiak emendatzen ditugu.

1.2.3. Jostalekuko jokoak, DDECrekin (*Direction diocésaine de l'enseignement catholique*)

Eskola elebidunetako haurrak komunzki erdaraz jostatzen dira ikasgelatik kanpo. Eskola giristinoen sareko pedagogia aholkulariak bultzaturik, lan talde bat osatu dugu irakasle batzuekin. Helburua: euskarazko joko eta kantu bilduma baten osatzea eta ezagutaraztea, haurrak euskaraz ari daitezen jostalekuetan ere. Gisa horretan hizkuntza maila hobetuko dute eta euskararekilako harremana goxatuko. Horretarako, atal berri bat sortu dugu Ikasen webgunean non irakasleek ikasleekin filmatzen dituzten jokoak edo kantuak ezartzen ditugun: www.jokoak.ikas.eus

1.2.4. Formakuntza eta dokumentazio saileko ofizioen egunak

- *Euskarazko literatura helduentzat*, Sarako Biltzarraren kariatara. Antolatzaileak: Sarako Biltzarra, Bilketa Sarea, Euskal Kultur Erakundea, Departamenduko Liburutegia (apirilaren 23an, Saran)
 - *Bilaketa bakarria erabiltzaileentzat: datu guztiak klik batean* - Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak (maiatzaren 10ean – Amasa-Villabonan, Gipuzkoan)
 - *Euskaraz beti eta hobeki, hizkuntza landuz*, UEUko formakuntza (uztailaren 1ean, Baionan)
 - *Tokiko funtsa eta euskarazko liburuak*, Departamenduko liburutegiak antolaturik (urriaren 11n, Hazparnen)
 - *Euskal antzerkigintza, tradizioa eta bilakaera*, Bilketa sareak, Departamenduko Liburutegiak eta EKEk antolaturik (azaroaren 14an, Uztaritzen)
- Dokumentalistak EGA azterketa gainditu du 2019ko ekainean.

1.2.5. Zineskola, EKE eta aholkulari pedagogikoekin

Zineskola dispositiboaren helburu nagusia hau da: euskarazko animazio film interesgarrien proposatzea euskal-irakasleei eta haien lehen mailako ikasleei, laguntza pedagogiko egokia eskainiz. Euskal kultur erakundeak du egitasmo hori eramaten, Gabarra Films, Cinévasion, Ikas eta Uda Leku partaideen laguntzarekin.

2019an hiru film eskaini dira, ikasle bakoitzak bi filmen ikusteko aukera izan zezan: *Grufaloo*, *Harpetarra* eta *Zarafa*. 3 641 ikusle izan dira, 3 sareetako 74 eskolatatik etorriak.

Ikaseko dokumentalistak aholkulari pedagogikoak laguntzen ditu irakasleen dokumentu osagarrien lantzen. Ustiapen pedagogiko horien aurkezteko hiru formakuntza saio (film bakoitzari doakion saioa) antolatu ditugu, 2019ko urtarrilean eta martxoan.

1.2.6. Libreplume elkartearekin

2019ko maiatzaren 29an, Bouquinville tikiaren kariatara, haur literatura saileko animazioak antolatu ditugu Libreplume elkarteko animatzailearekin. Iñaki Zubeldia idazlea eta Eider Eibar ilustratzailea ziren gomit.

Hiru eskolak parte hartu dute animazio horretan: Baionako Malégarie eskolako ikasgela bateko haurrek, Angeluko Kimua ikastolako bi ikasgelatako haurrek eta Baionako Oihana ikastolako lau ikasgelatako haurrek.

2. ANIMAZIOAK, PARTAIDETZAK

2.1. Ikasek antolaturik

- 2019ko urriaren 9ko goizean, *Euskara 1* eta *Euskara 2* baliabideak nola erabil, hiru sareetako irakasleentzat, Lapurdiko Lapurdi salan. Hiru sareetako 30 irakaslek hartan parte hartu zuten.
- Twicteuskaraz, esperimazioaren lehen urratsak, Twictée elkarteko Maritxu Leizagoien eta Mathieu Larramendi irakasleek bultzaturik: maiatzaren 6ko eta urriaren 9ko mintegiak.
- Xiberoan ibili dira Ikaseko bi langile, irailaren 3an zubererazko material berriaren aurkezten eta banatzen.

2.2. Partaideek antolaturik:

- 2019ko maiatzaren 2ko pedagogia eguna, Seaskako bigarren mailako irakasleentzat Bernat Etxepare lizeoan
- 2019ko maiatzaren 22ko pedagogia foroa, Hezkunde Nazionalak antolaturik, Saran (D-Lohizuneko eremua) eta Baionan (Baionako eremua)
- 2019ko ekainaren 24ko goizean, Ikasen baliabide eta zerbitzuen aurkezpena AEKko 17 irakasleri.

3. IKASMATERIALGINTZA

3.1. Ikas-tresna berri hauek argitaratu ditugu euskarri materialetan

- **Lehen eta bigarren zikloak**

- Chantal Barneix-Elizagarairen **Basajauna** izenburuko albuma, batuaz eta zubereraz (1. & 2. z.)
- Haur eta gazte literatura (elkarbizitza): **Lapindizita** eta **Maidar gerezi tomatea!** batuaz eta zub. (2. z.)
- **Euskara 1:** bi eskuliburuen edizio berria, irakaslearen gidaliburua eta baliabide osagarriak USB gakoan (2. z.)
- **Euskara 2** eskuliburua, irakaslearen gidaliburua, eta baliabide osagarriak USB gakoan (2. z.)
- **Usmafin inspektorearen inkestak 2. zikloa**, batuaz eta zubereraz
- Matematikak 2. zikloan: **HaraMat CE1** batuaz (bi fitxategi eta material fotokopiagarria)

- **Bigarren eta hirugarren zikloak**

- **Hala izan ala ez izan** liburu-CDa: Kattalin Salaberri eta Jokin Irungarairen ipuin bilduma (2. & 3. z.)
-

- **Laugarren zikloa**

- **Historia-geografia** sailean: 4. eta 3. maileri doazkien ikaslearen kaierak (Hatier argitaletxeko "Fiches d'activités" sailaren itzulpena)
- **Matematika** sailean: 4. eta 3. maileri doazkien ikaslearen kaierak (Nathan argitaletxearen "Les cahiers Transmath" sailaren itzulpena)

- **Helduen irakaskuntza**

- **Ikasbide 3** (A2.1) ikaslearen fitxategia, entzungaiak eta irakaslearen gidaliburua

3.2. Berrargitalpenak

- **Haserre gorria** albuma (1. z.)
- **Matematikak lantzen CE1** fitxategia
- BLZ (Biziaren eta lurraren zientziak) jarduera fitxategia (4. z.)
- **Ikasbide 1 (A1.1) ikaslearen fitxategia**
- **Ikasbide 2 (A1.2) ikaslearen fitxategia**
- **Ikasbide 1 (A1.1) irakaslearen gidaliburua**

*IKASek sortzen edo itzultzen duen ikasmaterial guziaz **Hezkunde nazionalak** ikuskatzen du pedagogiaren ikuspegitik; **Euskaltzaindiak** hizkuntza gainbegirada ematen dio eta beharrez, gaiko unibertsitario batek edukia aztertzen eta zuzentzen du.*

3.3. Argitalpen digitalak

Parte publikoan

- **1. mailan**

Jostalekuko joko saila:

- *Sagu txiki*
- *Esne (e)ta talo*

- **2. mailan**

Bestelako baliabideak:

- Zer euskarazko literatura nerabeentzat? (lehen erreferentzia zerrenda, 2018)

- **Helduen irakaskuntza**

- ***Ikasbide 3*** (A2.1 maila): entzungaiak

Azterketak

- CRPE - Epaimahaiaren txostenak (2017-2018)
- Euskara baxoan - 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetako azterketak
- Euskal agregazioaren 2018ko konkurtsoko programak
- Lizeoko euskara saileko programak

Dokumentazio zentroa

- **IKASOLAS**

Urtarrilekoa

- Gelako leihotik - Olerki Xuxurlatuak
- Erakusleihoa - *Emiliren desabenturak*
- Poesia nahas-mahas adin guzientzat... *Amets berriak asmatzeko*
- Kanpoko berriak
- Ikasen zer berri?

Maiatzekoa

- Poesia nahas-mahas adin guzientzat... *Sasoika dantzaz aldatzeko*
- Gelako leihotik - Euskal literatura, hizkuntzen arteko zubia - Bernardo Atxaga
- Erakusleihoa - *Sasiolako erroteria*
- Ikasen zer berri?
- Kanpoko berriak

Azarokoa

- Gelako leihotik - Pantailarik gabeko 10 egunak
- Erakusleihoa - *Arraroa*
- Poesia nahas-mahas adin guzientzat... *Zilarrezko mundua amets dezaket*

- Ikasen zer berri?
- Kanpoko berriak

Parte pribatuan

• 1. mailan

Baliabideak: (bigarren eta hirugarren zikloak)

- Garapen iraunkorra saileko fitxategi digitalak: *Jatea eta mugitzea, ene osagarriarentzat* (2016ko proiektua)
- Garapen iraunkorra saileko fitxategi digitalak: *Eguzkiaren eragina* (2016ko proiektua)

Ustiapen pedagogikoak:

- *Otto*

Dokumentu pedagogikoak

- Matematikak: *Larrazkeneko hostoak*
- Inauteriak - margotzeak
- Ama eskolatik lehen urtera

Zineskola: animazio filmen ustiapen pedagogikoak:

- *Grufaloo eta Grufaloaren alaba*
- *Harpetarra*
- *Zarafa*

Xiberoa

Batuazko albumen zubererazko egokitzapena:

- *Otto*
- *Neskatxona haur-jalearen bazkaria*
- *Ahizpa ttipi bat nahi düt!*
- *Ez niz beztitü nahi!*

Zubererazko olerki bilduma bat

Xirrixta aldizkariko *Züberoko Maskarada* dokumentua digitalizaturik

• 2. mailan

Obra hauen ustiapen pedagogikoak:

- *Zauri ezkutuak*
- *Aulki-jokoa*
- *Usategiaren printzipioa*
- *Sorginkerien liburua*
- *Gerrateko ogia*
- *Biribilgune*

• Helduen irakaskuntza

- EGA 2016 eta 2017: 1. eta 2. azterketaaldiak
- B1EA 2016 eta 2017: Gaiak

3.4. Landu ditugun proiektuak

• Lehen mailako ikas-tresnak

- *Lili eta Nino*, Joana Labèguerie ortofonistak sortu hizkuntza jokoa (1. & 2. z.) 2019ko proiektua

- Maddi Zubeldia eta Xano Halsoueten **Amalurrak oporrak behar ditu** ipuin musikatua: obra eta ustiapen pedagogikoa (2. & 3. z.). 2019ko proiektua
- Haize Othondoren **Ozeanoaren konkista**: obra eta ustiapen pedagogikoa (2. & 3. z.). 2019ko proiektua
- *Euskara 3*: eskuliburua, irakaslearen gidaliburua, eta dokumentu gehigarriak (2. zikloa)
- Pantxika Solorzanoren eta Xano Halsoueten obra: nork bere gogoaren biltzeko eta bere buruaren ezagutzaren lantzeko materiala
- Elise Dilet eta Antton Harinordokiren **Intza eta Tomas, Sorginaren sekretua**: obra eta ustiapen pedagogikoa (3. eta 4. z.). 2019ko proiektua
- Xalbat Itzainaren **Mugak gaudituz**: obra eta ustiapen pedagogikoa (3. z. & 4. z.)
- Twcitee.org elkartearekin, hizkuntza, pedagogia eta baliabide numerikoak uztartzen dituen tresna hori ("twictée") euskaraz egokitzeko lehen entseguak.

• Bigarren maila

- **Fisika** sailean irakasle talde batek sortu/egokitu materiala (6. mailatik 3. mailara)
- **Historia-Geografia** lizeoan: programa ofiziala Euskal Herriko ikuspegitik lantzea, irakasleen praktikan oinarrituz (4. zikloa)
- **Teknologia** saileko ezagutza-fitxak, metodo-fitxak eta aplikazio digitalak (4. zikloa)
- Maialen Alfaroren proiektua: gogoaren biltzeko ariketak (kolegioan eta lizeoan)

• Helduen irakaskuntza

- *Ikasbide 4* (A 2.2) ikaslearen fitxategia

3.5. DUDAKEN, Hezkuntzako Estilo Liburua

Hezkuntzako Estilo Liburua sortzen ari da Ikas 2018tik, Beñat Oihartzabal euskaltzaina eta Iker zentroko kidearekin, Maia Duguine Iker zentroko kidearekin, Céline Mounole UPPAko irakaslea eta Iker zentroko kidearekin, bai eta Antton Luku euskara irakasle ohiarekin ere.

Hizkuntza tresna berria da, Ikasen webguneari lotua eta sakelako telefonoetatik apli baten gisan baliatzeko prest ezarria.

Ikasek plazaratu duen egunean (2020ko urtarrilaren 29an), 33 fitxa ziren eginik, oroz gainera gramatika sailekoak (gramatikaz bestalde: euskara nola ahoska, laburdurak eta sinboloak nola idatz, hiztegia...).

Helburua: fitxa sinple batzuen bidez, euskaraz usu egiten diren pettoei ohartaraztea eta huts horien zuzentzeko bideen eskaintzea.

Batzuetan pettoari ohartaraztea aski da eta fitxari behatuz nork bere hutsak aise zuzentzen ahalko ditu. Hala gertatzen da **frantses kalko okerrengeatik, besteak beste frantsesezko hitz bakarraren parean euskaraz biga badi-relarik**, hala nola:

- “jusqu’à”, euskaraz denboraren eta espazioaren nozioak kontuan hartzen baitira: arte/raino
- “comment ?”: Nola da? / Nolako da? Egoeraz ala ezaugarriez ari garen pentsatu behar da.

Baina beste batzuetan gramatika nozioa argi ez izanez geroz, ulermena tratatzen da, hala nola kasu hauetan: *bere/haren; bera/berdina*; mugagabearen erabilera...

Gaien arabera, fitxari behatzea aski da baina **beste batzuetan formakuntza beharrezkoa da**.

Gai horien lantzeko, fitxez gain, formakuntza saio batzuk antolatu ditugu, Céline Mounoleren eskutik, lehenik UEU-ren kariatara, 2019ko uztailaren lehenean eta berriz (40 ikasle, oroz gainera euskara teknikariak, INSPEko irakasle-gaiak eta ikasle langileak), bai eta eskola giristinoetako lehen mailako irakasleentzat irailaren 11n (50 bat irakasle).

DUDAKEN euskaraz ari den orori zuzendua zaio. Bizkitartean, argitaletxe gisa, bere langileez gain, Ikasek irakasleak, itzultzaileak eta zuzentzaileak ditu bereziki gogoan. Horregatik, martxoaren 20an antolatu zuen lehen aurkezpen bilkuran lau sareetako pedagogia arduradunak, itzultzaileak, EEPko eta Euskal Elkargoko hizkuntza kalitate arduradunak bildu zituen.

Ikasen xedea: ahal bezainbat irakaslek formakuntza saioak balia ditzaten, eta ahalaz beren lan denboran.

4. HEDAPENA

4.1. Euskarri materialen hedapena, Ikasetik zuzenean

Ikasen ikastresnak dohainik zabaltzen dira ikastetxeetan (salbu ikasleen jarduera kaierak), Euskararen Erakunde Publikoaren diru laguntzari esker. Bestalde, gure liburuak eskuragai ematen ditugu eskola batzuek antolatzen dituzten liburu azoketan edo gure obrei buruzko ikusgarri batzuen kariatara, liburu denda batzuetan, hezkuntza edo kultura saileko animazio batzuen kariatara, Sarako Idazleen biltzarrean, Senpereko *Liburua familian* azokan, Durangoko azokan, eta lehen aldikotz 2019ko ekainean, Ziburuko Baltsan elkarteak antolatu euskal liburu eta disko azokan.

Irakasleei gure argitalpenen berri emateko parada hoberena pedagogia egunen kariatara gertatzen da, haietara gomit garelarik. Gaur egun Seaskako irakasleen elkarretaratzeetara gomit gara, sare pribatuan ere 2019ko irailaren 11n. Sare publikoari doakionez, Ikas gomit izan da 2019ko maiatzaren 22ko foro pedagogikoetan, Saran eta Baionan.

Bestalde, badu bizpahiru urte AEKk eta Baionako euskal ikasketetako fakultateak formatzen dituzten ikasleak eta irakaslegaiak Ikasera heldu direla gure egituraren eta zerbitzuen berri hartzera.


2019ko urtean, orotara **17 428 ale zabaldu ditugu (2018an baino 485 ale gutiago), horietarik kasik % 90 zuzenean Ikasetik. Diru sartzeetan 5 987 € gehiago izan da arrazoi hauengatik:** 2019an azoka berezia izan da (Ikasen bi urtetarik egiten dugu), eta 2019ko uztaitetik **Ikasbide** salgai da AEKn eta Elkar sarearen bidez.

Matematikak lantzen fitxategien salmenta gero eta ttipiagoa da, saila aspaldikoa baita. Menturaz "zapping" eta araberako fotokopia egiten da eskola zenbaitetan, irakasle batzuek diotenez.

4.2. Webguneen bidezko hedapena

Webgunea

 Bisitak: 81 506 (63 246 2018an)

 Telekargatzeak: 71 149 (47 681 2018an)

Sare sozialak

 Twitter: 186 jarraitzaile (165 2018an)

 Facebook: 249 jarraitzaile (247 2018an)

5. BESTERIK

5.1. Ikasen 60. urtemuga, azaroaren 23an, larunbat goizarekin, Uztaritzeko Lapurdi salan, UztaHitzan festibalaren kariatara

- Jokin Irungarainen eta Kattalin Salaberriren ipuin emanaldi arrakastatsua, Ikasek garai berean plazaratu *Hala izan ala ez izan* obran oinarritua.
- Egurditan: mintzaldi laburrak (Mizel Sarratia Uztaritzeko herriko etxearen izenean, Maite Erdozaintzi-Etxart Ikas elkarteburua, eta Beñat Arrabit Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria), bai eta 60. urtemugaren kariatara Ikasek apailatu erakusketaren aurkezpena.
- Bazkaria Uztaritzeko La petite auberge ostatuan.

Ospakizuna biziki giro goxoan iragan da eta horren oroitzapena bada besteak beste Aldudarrak bideok egin erre-portaiari esker.

5.2. Euskalgintza

5.2.1. *Ikas Euskal Konfederaziotik jalgi da, eta euskal irakaskuntzaren geroaz arranguratu da.*

Haste-hastetik Konfederazioaren partaide izanik ere (hogei bat urtez beraz), ez zuen gehiago bat egiten Ikasek haren egoera analisiekin eta jokabideekin.

Euskararen geroaz arranguraturik, Hezkunde nazionalak lizeoaren erreformaren kariatara lurralde hizkuntzei egin tratamenduaz mintzatu da Ikasen administrazio kontseiluetan, argitalpen batzordeetan eta errektoreak urtean bi aldiz biltzen duen *Commission académique des langues régionales* biltzarretan.

EEPk hezkuntza ministroari errektorearen bidez helarazi proposamenarekin (egiazko sail elebiduna izan behar dela lizeoetan) bat egiten du Ikasek.

2019an euskal irakaskuntzaren egoera okertzen ari zelako beste seinale bat: sei urte hauetan errektore zen Olivier Dugripek bat-batean eta arrazoirik eman gabe ukatu du irakasle baten uztea Ikasen lan egitera kolegioko ikastresnen sortzeko (2016-2017an abiatu lanaren segida). Euskararen Erakunde Publikoaren sostengua ukan du Ikasek baina makurra justu udako opor garaian gertatu da eta ez da xuxendu ahal izan ikasturte honetako.

5.2.2. *IkerGazte Baionan UEUK antolaturik*

UEUK IkerGazte bi urtetarik antolatzen du Euskal Herriko hiri batean. 2019an, Baionaren aldi zen. Ikasek gertakari horren ezagutarazteko ekitaldietan parte hartu du.

5.2.3. *Ikasen egoitza, euskal kulturaren hedatzeko erakusketa lekua*

Ikasen egoitza leku arras egokia da euskal kulturaren hedatzen laguntzeko. Mediatekaz gain, erakusketa lekua bihurtu da, eta 2019ko urte hondarrean halako biga antolatu ditugu Ikaseko pasabide nagusian:

- **Ikasen 60. urtemugaren kariatara** sortu duguna
- Auxtin Zamoraren **Argi "hitz"kiak** sorkuntza, argazki eta olerki sailetan oinarritua.

5.2.4. Gure Irratiaren kronika

Hilabeteen behin, Ikaseko lankideak elkarrizketatuak izan dira irrati saio labur baten egiteko (argitalpen saileko berritasunak, Ikasek antolatu animazioak, liburuzainaren irakurketa aholkuak...).

6. IKASEKO LANGILEAK

Ikasen langileria honela osatua zen 2019an:

- **Aines Dufau** zuzendaria
- **Ixabel Erremundegi** teknika eta administrazio kudeatzailea
- **Fred Larrondo** idazkaria eta hedapen arduraduna
- **Elise Dilet** dokumentalista (Hezkunde Nazionalaren postua)
- **Unai Zubeldia** lehen mailako ikasmaterialgintzako proiektu arduraduna (Hezkunde Nazionalaren postua)
- **Pantxika Paterne** bigarren mailako ikasmaterialgintzako proiektu arduraduna
- **Xabier Elizondo** maketista
- **Jaki Elkano** astean egun bat, euskara 2. zikloan lantzeko baliabideen sortzen
- **Régine Elozegi** Seaskako pedagogia aholkularia, astean egun bat, euskara 2. zikloan lantzeko baliabideen sortzen

2020ko EGITASMOAK

1. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

1.1. Mediateka

1.1.1. *Funtsaren aberastea eta berritzea*

Erosketen egiteko, dokumentalistak lau irizpide hauek kontuan hartzen ditu: prentsako berriak eta kritika artikulak, erabiltzaileen beharrak eta galdeak (Ikaseko zuzendariarenak eta lankideenak barne), idazleez eta argitaletxez dituen ezagutzak, bai eta Ikasen aurrekontuak ere, bistan da.

Erosketa politika hau da beti:

- Iparraldean argitaratzen diren euskarazko tituluak
- Haur eta gazte literatura hautatua
- Haurrentzat argitaratzen diren informazio-dokumentuak (zientziak, historia...)
- Helduen literatura, euskara ikasten ari diren helduek irakur ditzaketen liburuak ere gogoan atxikiz
- Dokumentu pedagogikoak, eta euskalgintzan edo euskal irakaskuntzan ari diren langileentzat interesgarriak izan daitezkeenak.

1.1.2. *Funtsaren baliatzea*

Irakasleen dokumentuen erabileraren errazteko xedez, segituko dugu:

- Gaika sortu bibliografiak webgunean ematen.
- Berrien araberrako dokumentuak agerian ematen.
- Gomendatuak diren liburuen zerrendatzen, maila eta adinaren arabera.
- Ustiapen pedagogikoen biltzen edo sortzen, eta webgunean ematen.
- Andanakako liburuen ezaugarrien zehazten, hautuaren errazteko.

Mailegatzeko baldintzak irakaslearen egoerari egokitzen ditugu (kopuruak eta epeak).

1.1.3. *Xedarratzea (désherbage)*

2020an ez dugu azoka berezirik eginen, bi urtetarik egiten dugulako (Hurrengoa 2021eko urrian izanen da.). Xederratze lana ez da beraz aurtengo lehentasunetan izanen. Hala ere, liburu zaharkituak edo andeatuak mediatekako arasetarik kentzen ditugu erregularki.

1.1.4. *Webgunean*

Ikasen webgunea mediatekaren osagarria eta ataria izan behar da. Dokumentu digital, txosten bibliografiko, ustiapen pedagogiko eta behar diren dokumentuez osatzen segituko dugu, irakasleek mediatekaren funtsa ongi balia dezaten.

Covid-19ko etxealdi garaian, zaintza lana egin dugu gure webgunearen osatzeko, baliabide zenbait zerrendatuz

burasoentzat eta irakasleentzat. Zortzi astez (martxoaren 16tik maiatzaren 7ra), baliabide horiei buruzko orrialdeek 5.600 bisita baino gehiago izan dituzte. Baliabide horiek Euskal Herriko hainbat elkartetek eta erakundek proposatuz gain heldu ziren.

Etxealdiak behar berriak agerian eman ditu, bereziki lehen hezkuntzari dagokionez: tresna digital interaktiboentzako eta zabaltzeko lanak lehentasuna du osasun krisian.

1.1.5. Ikasolas

Hiruhilekoan behin zabaltzeko asmoa dugu. Horretarako, irakasleek erabaten dituzten proiektu interesgarrien berri ukan behar dugu. Hedapen eta irakur tasak goitiaz nahi ditugu.

1.1.6. Animazioak

Haur literatura saileko animazioen (ipuin kontaketak) erregularri antolatzeko xedea dugu.

1.1.7. Gazteen euskarazko literatura

Euskarazko gazte literaturaz Bilketa eta EKerekin 2018an antolatu genuen egunaren haritik, erreferentzia zerrenda bat osatuko dugu bigarren mailako kolegio eta lizeoetako irakasle eta dokumentalistekin. Osatuko dugun erreferentzia zerrenda horrek euskara saileko ikasmaterialgintza kontuan hartuko du, hala nola gaur egun 4. zikloarentzat finkatuak diren zazpi gaiak. Lan hori baliagarria izanen da ikasleentzat, irakasleentzat eta dokumentalistentzat.

1.2. Partaidetzak

1.2.1. Zineskola, EKE eta Hezkunde Nazionalen pedagogia aholkulariekin

2019ko Zineskola biziki arrakastatsua izan da (3641 ikusle) eta irakasle guzietan preziatu dute ustiapen pedagogikoen kalitatea. Aurten, 4 aholkulari pedagogikoen sortzen dituzten dokumentuak maketatua izan da EKeren diru laguntzari esker. Gisa horretan ustiapen pedagogikoen oraino aiseago baliatzen ahalko dira.

2020an bi film eskaini dira: *Arratoi pirata* eta *Kerity*. Aurten orotara 5600 ikasle baino gehiagok izena emana zuten, hiru sareetako 98 ikastetxetatik. Ustiapen pedagogikoen aurkezteko, bi formakuntza saio (film bakoitzari doakion saioa) antolatu ditugu, 2020ko otsailaren 19an. Txostenak Ikasen webgunean eskura daitezke, kode baten bidez. Ondikoz, Covid-19rengatik zinema saio guzietan ezeztatu dira.

1.2.2. Jostalekuko jokoak, DDECekin

2018an hasi lanaren jarraipena. Aurten 5 irakasle osatzen dute taldea. Atal berezi bat sortu dugu Ikasen webgunean; aberastuko dugu biltzen eta grabatzen ditugun jokoez. Lan horren berri zabaltzen hasiak gara.

1.2.3. Bilketa sarean

Lan partekatua erabaten ari gara beti autoritateen sailean (Baionako Mediateka, Bilketa, Euskal Museoa, HABE Liburutegia, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzua, Nafarroako Liburutegi Nagusia, Ikas). Euskarazko egileen autoritateen lantzen segituko dugu. 2020an, lan horrek behar bezalako eragina eta oihartzuna izan dezan, eman beharreko urratsen aztertzen hasiak gara.

1.2.4. Bilketa sarea: Wikipedia

Euskarazko wikipediako edukien aberasteko talde bat osatu dugu. Lehentasunez, Iparraldeko euskal idazleak agerian ematen ditugu. Urtean hiru aldiz biltzen gara, lana elkarrekin aitzinatuzeko gisan.

1.2.5. Libreplume elkartearekin

2020ko apirilaren 3an, Bouquinville ttikiaren kariatara Libreplume elkarteko animatzaileekin antolatu haur literatura saileko animazioak ezeztatu dira Covid-19rengatik. Pello Añorga idazlea eta Maite Gurrutxaga ilustratzailea ziren gomit, beldurraz aritzeko.

1.2.6. Arte eta Kultura Heziketa euskaraz

Euskarazko arte eta kultura heziketa saila garrantzi handikoa da, besteak beste lehen mailaren eta kolegioaren arteko juntan baita eta jarraipenaren sustatzeko helburua baitu. 64 Departamenduko zerbitzuko koordinatzaileak lan saila berriz abiarazi zuen bilkura bat programatu, baina azkenean hori ere ezeztatua izan da Covid-19rengatik.

1.2.7. Uztaritzeko herrian

Uztaritzeko herriak UztaHitzan antolatzen baldin badu 2020an ere, Ikas entseatuko da animazio baten proposatzera, aitzineko urteetan bezala.

1.2.8. Gure irratiko kronikak

Menturaz Ikasek segitzen ahalko du hilabeteen behin, Panpi Merkapideren kronikan parte hartzen. Besteak beste euskarazko liburu batzuen ezagutarazteko eta irakurketaren bultzatzeko parada eskaintzen duen emankizun laburra da.

1.2.9. Besterik

2019ko azaroan hasi gara erakusketen antolatzen Ikaseko pasabide nagusian.

2020ko urtarrilean, Ikasen 60. urtemugaren kariatara egin dugun erakusketa ezarri dugu. Otsailean, ihauteri garaiko Hartzaro festivalaren kariatara, maska erakusketa muntatu dugu, Art Plastik - Deneri idekia -elkarteko Briguit Maryren laguntzaz.

2. ANIMAZIOAK

- **Euskara 2. zikloan:** 2019an Régine Elosegik Unai Zubeldiaren parte hartzearekin egin animazioaren arrakasta ikusirik (2019ko urriaren 9an, 30 irakasle), 2020an ere 2. zikloko ikastresnei buruzko beste animazio saiorik izanen da. Saio horiek praktikotasunean oinarritzea dute helburu, irakasleei adibide konkretuak erakutsiz eta probaraziz.
- **Twikteuskara:** 2019an irakasle zenbaitek ortografiaren eta gramatikaren lantzeko dispositibo hori probatu zuten, hizkuntza mailaren hobetzeko ariketak eta komunikazio teknologia berriak uztartuz. Horren aurkezpena egin zuten 2020ko urtarrilean EIDOS64 egunaren kariatara Maritxu Leizagoienek eta Mathieu Larramendik. Biak lehen mailako irakasleak dira eta Twictée.org elkarteko kideak. Aurkezpenaren ondotik, sail elebidun publikoko Maialen Ervitik (informatika saileko irakasle erreferentea), Maia Lamensansek (euskarazko pedagogia animatzailea) eta Mari-Pierre Cohéré ikuskariak Twicteuskara sare publikoan bultzatzeko xedea adierazi dute. Horregatik sare publikoko sail elebiduneko irakasle guzietan egitasmoa aurkeztu zaie martxo honetan, heldu den ikasturtean sare guzietako irakasleei irekia izanen zaien formakuntza/animazio saioen plantan ezartzeko helburuarekin.
- **DUDAKEN**en ezagutarazteko eta gramatika nozio zailenen lantzeko:
 - 2020ko urtarrilaren 29an, 15:00etatik 17:00etara, Céline Mounolek eta Maia Duguinek eman bi oreko saioa, 28 lagunentzat (lehen mailako eta kolegioko irakasleak)
 - Saio horien segida 2020ko martxoaren 11n, tenore berean (15:00etatik 17:00etara) 24 jenderentzat

- AEKko irakasleentzat, Antton Lukuk eman formakuntza, uztailean (egun erdiko saioak)
- UEUren karietara, Céline Mounolek eta Maia Duguinek eman beharra zuten formakuntza, 2021eko uztailean gibelatua da.

- **Mintzaldia euskararen historiaz**, 2020ko urrian, Céline Mounole Paueko eta Aturri aldeko unibertsitateko irakasle-ikertzaileak emanik.

3. IKASMATERIALGINTZA

3.1. 2020ko argitalpen egitaraua

Lehen mailako ikas-tresnak

- **Euskara lehen mailan (1., 2. eta 3. zikloetan)**

- ◆ **Zera** (*Narramus* saileko albuma) eta ustiapen pedagogikoa (1. z.)
- ◆ **Euskara 3**: eskuliburua, irakaslearen gidaliburua eta baliabide osagarriak (2. zikloa)
- ◆ Maddi Zubeldia eta Xano Halsoueten **Amalurrak oporrak behar ditu** ipuin musikatua: obra eta ustiapen pedagogikoa (2. & 3. z.). 2019ko proiektua
- ◆ Haize Othondoren **Ozeanoaren konkista**: obra eta ustiapen pedagogikoa (2. & 3. z.). 2019ko proiektua
- ◆ Elise Dilet eta Antton Harinordokiren **Intza eta Tomas, Sorginaren sekretua**: obra eta ustiapen pedagogikoa (3. eta 4. z.). 2019ko proiektua
- ◆ Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork lantzeko karta

- **Matematikak 2. zikloan, 2016ko programen arabera: Cap Maths sailaren itzulpena**

- ◆ Matematikak batuaz: **Haramat CE2**, fitxategia eta geometriako kaiera
- ◆ Matematikak zubereraz: **Haramat CE1** eta **Haramat CE2** fitxategiak, bai eta geometriako kaiera

Kolegioko ikas-tresnak

- **3. zikloa**

- ◆ BLZ: Réseau Canopé webguneko bideoen euskaratzea
 - *Copernic et Galilée* – 3'21"
 - *Que mange-t-on ?* - 2'58"
 - *D'où proviennent les aliments ?* 2'41"
 - *A quoi servent les aliments ?* - 02'07"
 - *Bien manger, oui, mais comment ?* - 02'38"

- **4. zikloa**

- ◆ **Teknologia** sailean: ezagutza-fitxak, egile eskubideen jabea den Bordeleko akademiarekin hitzartuz geroz
- ◆ **Fisika** sailean Seaskako irakasleen laguntzaz, ziklo osoko balio duen eskuliburua

- ◆ **BLZ:** Réseau Canopé webguneko bideoen euskaratzea
 - *La respiration* – 3'40"
 - *L'excrétion urinaire* – 1'48"
 - *La digestion* – 2'41"
 - *1780, Spallanzani et les spermatozoïdes* – 2'50"
 - *Le microbiote intestinal* - 5'10"
- ◆ **Euskara** sailean, 2016-2017 ikasturtean Nelly Challettek ireki ildoaren segida (gai bat)
- ◆ **Kolegioan eta lizeoan:** Maialen Alfaroren proiektua *Lasaitasunez loratuz* (gogoaren biltzeko)

Lizeoko ikas-tresnak

- ◆ **Historia-geografia** sailean:
